

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ HERNANI JOCC

## Txirrindularitza probatzeko deia

Gaurko bilera deitu du JOCC Txirrindularitza Taldeak, txirrindularitza probatu nahi duten gaztetxoei zuzenduta. 18:00etan egingo da Latsunbe Berriko 42an (Transpakarren). Infantil eta alebini zuzendutakoa izango da, hau da, 2006-2007 urteetan jaiotakoei edota 2008 eta 2009an jaiotakoei, Astigarraga eta Hernanitik kanpo eskolaratutakoei. ■

■ HERNANI JARDUNALDIAK

## Emakumeak lurraldearen defentsan

Biterin, 17:00etatik aurrera, 'Emakume defendatzaileak gure bizitza eta lurraldeak zaintzen' jardunaldia antolatu da Txiapas eta Ertamerikatik etorritako sei hizlariren esperientziekin.

LURRALDEAREN emakume defendatzaileak protagonista izango diren jardunaldiak atzo hasi ziren. Elekrika espainiarren eraginaz Mexikon eta Guatemalan aritu ziren eta gaur jarraituko du jardunaldiak. Biterin, 17:00etatik aurrera, Nazioarteko Topaketa: Emakume defendatzaileak gure bizitza eta lurraldeak zaintzen, antolatu da eta Txiapas eta Ertamerikatik etorritako sei emakume hizlari ariko dira bi gai desberdinetaz hizketan.

Jorratuko den lehen gaia: Indarkeriei aurre egiten: gure lurralde lurraren kontra eta gure lurralde gorputzaren kontra erasoak izango da eta ondoren jarraian bigarren gaia Lurraldearen defentsarako aliantza feministak da. ■

### EGITARAUA-Gaur

- 17:30: Moderatzailea: *Mujeres tejiendo Red.*
- 17:40: Irma Vázquez - Centro de DDHH Fray Bartolome de las Casas, Txiapas. *Acteal, gatazka-testuinguruetako komunitateen kontrako bortizkeriaren paradigma bezala.*
- 17:55: Michelle Carbajal - Yo No Quiero Ser Violada Mugimendua. *Sistema kolpista, zigorgabetasuna eta sexista-indarkeria Hondurasen.*
- 18:10: Marixela Ramos - Radio Victoria - Ades Santa Marta, El Salvador. *Megaproiektu erauzkitzaileen aurka defentsarako erkide-prozesuetako emakume buruzagi artikulazioa.*
- 18:55: Zuleyma Arauz - La Colectiva Feminista, El Salvador. *Mesoamerikako Emakume Defendatzaileen Ekimenari.*
- 19:10: Lolita Chavez - K'iche's Herrien Kontseilua, Guatemala: *Feminismo desberdinen arteko aliantzak: aurrerapenak eta erronkari*
- 19:25: Galderak, ondorioak, itxiera.



Mario Minera eta Claudia Vázquez, atzoko hitzaldian.

■ HERNANI SALAKETA

## Kontzentrazioa, hilketa salatzeke

Emakumeen Mundu Martxak deituta, kontzentrazioa egingo da gaur, 19:00etan, Plaza Berrin, larunbatean Baionan izandako emakume baten hilketa salatzeke. ■

■ ASTIGARRAGA UDALA

## Egutegirako argazkiak gaur ezagutuko dira

Astigarragako kultur etxean gaur, 19:00etan, 2020 urteko egutegirako aukeratu diren argazkiak ezagutzera emango dira eta ekitaldian ere sariak banatuko dira. ■

■ HERNANI TERAPIA

## Erretzeari uzteko talde terapia

Hernaniko anbulategian gaur erretzeari uzteko talde terapia egingo da. Saioak 13:00etatik 14:30etara dira eta parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute, medikuari edo erizainari jakinarazita. ■

■ HERNANI MUSIKA

## Jam Session, bihar Gaztetxean

Hernaniko Gaztetxean Jam Session egingo da 22:00etatik aurrera. Lehenik mikro irekia egongo da eta ondoren hasiko dira Jam Sessionarekin. Mikro irekian, jendeak aurretik entsaiatutako piezak eszenaratzeko dira eta Jam Sessionean berriz, inprobisatu egiten da. Irekia da zale guztientzat. ■

■ HERNANI ERABAKI

## Hernani erabakitze fasean aurkitzen da

Azaroaren 24ra arte proposamenak bozkatzeko aukera dago eta aurkezpenak egiten ari dira.

ERABAKI Hernani parte-hartze prozesua azken fasean dago, hau da, hernaniarrek 22 proposamenen artean erabaki behar dute eta bozkatzeko epea azaroaren 24ra bitarte dago irekia. Proposamen guztiak ezagutzeko auzoz auzo ari dira aurkezpenak egiten eta datorren astele-

henean Sorgintxulon egingo da, 19:00etan, eta asteazkenean, Portu auzoan. Datorren ostegunean Plaza Berrin jarriko da informazio puntua arratsalde 16:30etatik 18:30etara. Aurkezpen saioetan nahiz informazio puntuetan bozkatzeko aukera ere egongo da. ■

■ HERNANI ABESBATZA

## Udazkeneko kontzertua etzi, Milagrosan

Goiz Eguzki eta Zumaiako Beheko Plaza abesbatzak elkarrekin ariko dira 19:00etan.

HERNANIKO Goiz Eguzki eta Zumaiako Beheko Plaza abesbatzek udazkeneko kontzertua eskainiko dute etzi, larunbatean, Milagrosan 19:00etatik aurrera.

Zumaiarrek ibilbide luzea dute eta prestigio handia. Bi aldiz irabazi dute Madrilgo sari nazionala Imsersok an-

tolatuta. Goiz Eguzkik abes-tuko duen kantuetako batean honako laguntza izango dute: Xabi Odriozolarena biolinarekin, Boni Agirresaroberena txistuarekin eta Kanariorena, atabalarekin. Udazkeneko kontzertuan jendea urtero biltzen da erruz eta aurten ere horrela espero da. ■

restaurant **ZUMARDI** igandeko menua

LEHENENGO PLATERA  
Perretiko eta gula entsalada epela  
Urdaiazpiko iberiko razioa  
Etxeko folie micuit tostadatxoekin  
Plantan egindako langostino taula

BIGARREN PLATERA  
Labean erretako legatza  
Esneko arkume errea  
Behi azpizuna foi saltsarekin

30 €

Etxean egindako postre gaxoak...  
Ogia, rioja kiantza ardoa, rueda txuria, sagardoa...

orkolaga kalea, 2 hernani  
943 33 60 56

**TXINTXUA JATETXEA**

Gosariak, hamaiketakoak,  
bokatak, menua edo karta.

Etxeko janaria

ORDUTEGIA  
Astelehena - osteguna 07:00 - 23:00  
Ostirala 07:00 - 00:00  
Larunbata 09:00 - 00:00

Zikuñaga ballara, 76 HERNANI  
943 55 21 99 / 609 655 607

**Tripontzi jatetxea**

PINTXOAK  
RAZIOAK  
ENTSALADAK  
PLATER KOMBINATUAK  
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 · HERNANI  
943 555 724

sulabe

**Valella okindegia**

Nagusia 27  
Astigarraga  
943 33 24 10



**GAUR**

Zaparradak eta giro hotza. Fronte berri batek, zaparrada giroa utziko du eta tarteka mardul botako du, batez ere kantauri isurialdean. Litro asko espero dira. **Min.8° / Max.12°**

**BIHAR**

Negu giroa. Zaparradak nonahi eta noiznahi botako ditu eta ekaizta jo eta bingorra ere bota dezake zenbait lekutan, batez ere kantauri isurialdean. **Min.7° / Max.11°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## URUMEA BURBUNAK ETA ETSAYAK

# 'Burbunak eta etsayak' Euskadiko Filmategian dago

Pasa den urriaren 31n eraman zen Donostiako egoitzara eta bertan egon ziren, besteak beste, Eñaut Agirre eta Iñaki Sanz-Azkue egileak.

BURBUNAK eta etsayak dokumentala Donostian dagoen Euskadiko Filmategiko Kontserbazio Sailean dago jadanik gordeta. Pasa den urriaren 31n eraman zen bertara eta han egon ziren besteak beste Filmategiko Ion López, *Burbunak eta etsayakeko* egileak diren Eñaut Agirre euskal filologoa, eta Iñaki Sanz-Azkue biologoa, eta irudi grabaketan eta post-produkzioan aritu zen Jon Mari Beasain. ||



Eñaut Agirre, Ion López, Jon Mari Beasain eta Iñaki Sanz-Azkue.

## ARANO SAN MARTINAK

# 'Baratze kritikoa' erakusketa eta 'Harria, maitasun istorioa', ikusgai

San Martinetan bi ekitaldi nagusi horiek antolatu dira Maisuenean gaur hasi eta igandera bitarte, baita Talo Jatea ere larunbatean bertan.

ARANON ohitura zaharrei eusten diete eta asteburu honetan San Martinetako ekitaldiak antolatu dituzte. Bi dira nabarmentzekoak. Alde batek *Baratze kritikoa* erakusketa egongo da ikusgai larunbatean eta igandean. Larun-

batean 10:00etatik 14:00etara ikusi ahalko da eta igandean ordu horretan bertan eta 17:00etatik 20:00etara.

**Gaur bideo emanaldiak irekiko du erakusketa** Erakusketa gaur irekiko da,

19:00etan, bideo emanaldi batekin eta larunbatean Iñaki Perurenarekin *Harria, maitasun istorioa* kontakizuna egongo da, 18:00etan, Maisuenean, eta ondoren erakustaldia egingo du Iñaki Perurena berak. ||

## URUMEA BETERRI BURUNTZA

# 'Beterri Saretuz' programaren lehen jardunaldia gaur, Oronan-Ideon

09:30etatik 13:30etara antolatu da eta bertan bost enpresek hirzartuko dute: Talleres Mitxelena, Fagor Ederlan, TaPuntu, Argia eta Katea Legaia.

BETERRIKO enpresek euren barne egituretan partaidetza bultzatzeko tresna edo gidaliburu bat izan dezaten *Beterri Saretuz* programaren jardunaldia antolatu da. Gaur izango da lehen jardunaldia, Orona-Ideon, 09:30etatik 13:30etara. Bertara gonbidatu dituzte eskualdeko enpresak, lanbide heziketako eragileak, ekintzaileak, co-working zen-

troetako kideak eta garapen agentziak. Talleres Mitxelena, Argia, Fagor Ederlan, Katea Legaia eta TaPuntu enpresen hitzartzea etorriko da ondoren.

Eskualdean joan den ikas-turtetik ari dira lanean hainbat enpresa eta eragile, ekonomia sozial eta eraldatzailearen bueltan sare eta nodo eraginkor bat sortzeko

helburuz. Epe luzearako ikasketak prozesu bat da, eta estrategia horretan, lehen proiektuari ekingo diote aurten: partaidetza oinarri duten enpresen ekosistema sortzea. Beterri Saretuz deitu diote programari. Horretarako hainbat jardunaldi egingo dituzte, esperientzien ezagutza, bidalguntza eta lan-mahaien bidez. ||

## HERNANI ELUR TXORI



Elur Txori elkarteko sarrean sarrituak eta antolatzaileak.

### Rufinok irabazi du Sagardo Txapelketa

Aurreko larunbatean jokatu zen Elur-Txorin, 37. Sagardo Txapelketa eta Rufino sagardotegiak irabazi zuen 1.178 punturekin. Ondoren, hurrenez hurren geratu ziren Oiarbide (1.162 p), Elorrabi (1.146 p) eta Iparragirre (1.117 p). Honakoek ere hartu zuten parte: Alzueta, Astiazaran, Setien, Alberro, Zelaia eta Elutxeta. Giro onean afaldu zuten Eli Pagola eta Nerea Ibarzabal bertsolariek alaituta. ||

## ASTIGARRAGA IPUIN KONTAKETA

### 'Ustekabeko festa'-ren kontaketa, gaur

Lur Kortak gaur, 18:00etan, udal liburutegian *Ustekabeko festa* liburuaren kontakizuna egingo du 3 urtetik gorako haurrentzat ||

## HERNANI HAUR ANTZERKIA

### 'Ehuna' haur antzerkia etzi, Biterin

*Ehuna* haur antzerkia dago etzi, Biterin, 11:00etatik 12:30etara. Urte bete eta 5 urte bitarteko haurrentzako antzerkia da eta Cristobal Balenciagaren unibertsoan inspiratuta dago. Jon Amezaga eta Miren Leiceaga dira dantzariak eta sortzaileak. ||

## EREÑOTZU BAZKARIA

### Eskolako emakumeen bazkaria etzi da

Etzi, larunbatean, Ereñotzuko eskolan ibilitako emakumeen bazkaria antolatu da Hernaniko Errioguarda jatetxean. Azaltzeko asmorik ez duenak 652 715 075 telefono zenbakira deitu dezake. ||

## HERNANI LOTERIA

### Elkarteetako loteriak salgai

Hainbat elkarte salgai jarri dute, dagoeneko, Gabonetako loteria. Goiz Eguzkin astelehen, asteazken eta ostiraletan erosi daiteke, 16:00etatik 18:00etara; EAJrena, ostegunetan, batzokian, 18:00etatik 19:00etara; Atletismo Elkartearna, Gunea garagardotegian, Deportivo tabernan, Inaxi gozo-dendan, klubean, eta Miguel Lujanbioren postuan; Dobera Euskara Elkartearena, Larramendi 11ko bulegoan, odol emaile elkartearena odola ematean eta Hernani Errugbi Taldekoa urtero bezala, Landareko bulegoetan eta ohiko komertzioetan dago eskuragarri. ||

## IRAGARKI MERKEAK

Garaje marra alokatzen dut Gartzia Goldaraz kalean, Correoseko eraikinean. 75 € hilean. Deitu: 687 841 817

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)

Pisua eta trasteroa salgai Lizarraga kalean, Lizeagan, 2 logela, sukaldea, sala eta komunak. Deitu: 659 106 467

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)